

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren (CEA) unibertsitate tituludun gazte-entzako trebakuntza beken deialdia

Gasteizko Udalaren organismo autonomoa da Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (CEA, hementik aurrera), eta hau du helburu: ingurumenaren alderdi eta adierazpide guztiak ikertzea, sustatzea eta aztertzea, eta, bereziki, Gasteizko udal-barrutian ingurumena zaintzen eta kontserbatzen laguntzea.

Gasteizko udalaren ingurugiro gaietarako ikastegiaren Estatutuen 3.1 artikulua zehazten duenez, besteak beste hau da erakundearen eginkizuna: "Ingurumen-trebakuntza eta -prestakuntzaren alorreko politika garatzea, batez ere Gasteizko Udalaren funtzionamendu-eta eskumen-eremuko ingurune fisikoari dagokiona". Xede hori iristeko, berriz, jarduera hauek bultzatuko dira, 3.2. artikulua dioenari jarraikiz: "Ingurumenari buruzko trebakuntza-programak prestatu eta garatzea, maila akademiko eta profesional guztietan. Oinarrizko ikerketa-teknikak prestatzea eta garatzea ingurumenaren kudeaketarako".

Honenbestez, hau erabaki du CEAK: norgehiagoka-prozedura deitzea, Gasteizko udal-barrutian ingurumena zaintzeko eta hobetzeko zenbait alorretarako zazpi ikerketa- eta trebakuntza-beka emateko.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak eta lege horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak agintzen dutenari jarraikiz egiten da deialdi hau.

Lehen artikulua: Deialdia

1. Trebakuntza eta ikerketako zazpi bekaren deialdia egiten du CEAK, norgehiagoka-erregimenean; beka horietatik lau jasangarritasunaren ikerketa-, diagnosi- eta ebaluazio-sailerako dira; bi, jasangarritasunerako informazio- eta berrikuntza-sailerako, eta bat ingurumenari buruzko sentsibilizazioa eta hiri-jasangarritasunaren kulturaren sustapena sailerako.

Bigarren artikulua: Helburua eta iraupena

1. Beken berariazko xedea hau da: CEAREN lan-ildoekin lotura duten ingurumenaren alorreko zenbait gairi buruzko trebakuntza eta ikerketa sustatzea. Gehigarrian daude beken izenburuak.

2. Hamabi hilabetekoa da beken iraupena, zeina urtebete luza baitaiteke, beka bakoitzari dagokion CEAKo sailaren buruak hala proposatuta. Bekaduna lanean hasten den egunetik hasiko da zenbatzen epea. Esleipen-erabakian zehaztuko da noiz hasi behar duen lanean.

Hirugarren artikulua: Diru-homidura eta ordaintzeko era

1. Beka bakoitzaren zuzkidura 12.240,00 eurokoa izango da. Hilero ordainduko da beka (1.020,00 euro hileko). Hilero egingo da ordainketa, hila amaitu ondoren.

2. Dagozkien atxikipenak ezarriko zaizkie zenbateko horiei, Pertsona Fisikoen Errentaren Gai-neko Zergaren Araudia onartzen duen martxoaren 30eko 439/2007 Errege Dekretuaren arabera. Halaber, trebakuntza-programetan parte hartzen duten herritarrak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak eta zehaztapenak arautzen dituen urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuaren kotizazio-erregimenari atxikirik dago beka bakoitza, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarriak aurreikusten duena garatuz.

3. Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuaren kontura ordainduko dira trebakuntza-jarduera osagarriak, baldin eta halakorik egitea erabakitzen badute beken onuradunei dagozkien sailtako arduradunek.

4. Bekari uko egiten bazaio eta/edo hura baliogabetzen bada, bekari uko egin dionak kontsumitu gabeko epearekiko proportzionala izango da ordezeko bekadunari ordaindu beharreko zenbatekoa. 1. puntuan jasotakoaren arabera egingo da ordainketa.

5. Baldintza etengarri honen mende geratzen da deialdi hau: 2017ko eta 2018ko ekitaldietan haren obligazioak ordaintzeko kreditu egokia eta behar adinakoa egotea.

Laugarren artikulua: Onuradunek bete beharreko baldintzak

1. Baldintza hauek betetzen dituztenek eska dezakete trebakuntza-eta ikerkuntza-beka:

a) Espainiar nazionalitatea edo Europar Batasuneko kide den beste estaturen batekoa dutenek. Horrez gain, gaztelania menderatu behar dute hautagaiak, eta Espainian bizi beka jasotzen hasten direnean.

b) 2013ko ekainean edo data horren ondoren izan behar dituzte amaituak eskatzen den titulazioa eskuratzeko ikasketak. Ofizialki homologatuta egon behar dute Espainiatik kanpora eskuratutako tituluek.

1. gehigarrian daude beka bakoitzerako eskatzen den prestakuntza akademikoari buruzko xehetasunak.

c) 30 urte edo 30 urte baino gutxiago edukitzea 2017ko urtarrilaren 1ean.

Bosgarren artikulua: Eskarien aurkezpena

1. Posta elektronikoz egin behar da eskaria, www.vitoria-gasteiz.org/procesosselectivos-en, CEAREN hautaketa-prozesuen atalean. Horretarako, izena eman behar da lehenbizi eta, ondoren, eskari-inprimakia bete. Dokumentazio hau erantsi behar zaio inprimakiari:

– Curriculum vitae, pdf formatuan.

– Ikasketa-espeditentea, zer ikasgai gainditu diren eta zer kalifikazio jaso diren zehaztuta, pdf formatuan.

Hautaketa-prozesuan zehar, beste ziurtagiri osagarri batzuk ere eska ditzake CEAK, noiznahi.

Ikasketa-espeditenteko batez besteko nota haztatua zein den adierazi behar dute hautagaiak eskari-inprimakian. Zenbakizko adierazpen osoa ez bada ageri ikasketa-espeditentean, nahitaez kalkulatu behar du hautagaiak, formula hau aplikatuz: jasotako kredituen batura, dagozkien kalifikazioez biderkatuta haietako bakoitza ondoren zehaztuko ditugun baliokidetasunen arabera, eta jasotako kreditu guztien kopuruaz zatituta. Nahiko, 5 puntu; Oso ongi, 7 puntu; Bikain, 9 puntu; Ohorezko matrikula, 10 puntu; Baliozkotua, dagozkion puntuak, aurrez egindako ikasketetan jasotako kalifikazioaren arabera; hala badagokio, adierazi egin behar da sari berezirik jaso den, Tituluaren Europar Gehigarria emateko prozedura (irailaren 11ko BOE) ezartzen duen abuztuaren 1eko 1044/2003 Errege Dekretuaren eta Europako kreditu-sistema eta unibertsitate-titulu ofizialen kalifikazio-sistema ezartzen duen irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren arabera (irailaren 18ko BOE).

2 www.vitoria-gasteiz.org/procesosselectivos-en egin behar da eskaria, CEAREN hautaketa-prozesuen atalean, hamabost egun balioduneko epean, oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu eta biharamunetik zenbatuta.

3. Deialdi honetako bi hautaketa-prozesutan, gehienez ere, har dezake parte eskatzaileak, hots, gehienera ere bi beka eska ditzake.

4. Eskariak aurkezteko epea amaitu eta astebetetera, beranduenera ere, aurkeztuko da hautaketa-prozesura onartutakoen behin-behineko zerrenda, eta akatsak zuzentzeko fasea irekiko, halakorik balego.

Seigarren artikulua: Eskarien balorazioa

1. Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastetxeari dagokio oinarri hauetan aurreikusten diren beka-eskariak aztertzea eta baloratzea.

Horretarako, hautaketa- eta jarraipen-batzorde bat eratuko da beka bakoitzeko. Hauek osatuko dute batzordea: beka bakoitzari dagokion sailaren arduradunak, eta beka bakoitzeko ikasgai espezifikotik adituak diren CEAko eta/edo Udaleko bi teknikarik, CEAREN zuzendaritzak izendatuak biak ere.

Elkarren segidako bi fasetan egingo du batzorde horrek aurkezten diren eskarien balorazioa, ondoren aipatuko ditugun balorazio-elementuen arabera betiere, eta CEAREN zuzendaritzari igorriko dio hautagai-zerrenda.

2. Lehen fasea. Balorazio akademikoa.

Elementu hauen arabera baloratuko dira deialdiaren eskakizunak betetzen dituzten eskariak:

– Unibertsitate-titulua eta ikasketa-espeditentea: batera baloratuko dira unibertsitate-tituluak bekaren xede eta gaiarekiko duen egokitze-maila eta ikasketa-espeditentearen batez besteko nota.

– Prestakuntza osagarria (masterrak, graduondokoak, bestelako unibertsitate-ikasketak): prestakuntza osagarriak bekaren xede eta gaiarekiko duen egokitze-maila baloratuko da.

– Hizkuntzak: eskatzen den mailatik gorakoa bada hizkuntza-alarreko ezagutza, balioetsi egingo da.

– Informatika-alarreko ezagutza: eskatzen den mailatik gorakoa bada informatika-alarreko ezagutza, balioetsi egingo da.

– Bekaren xedearen eta gaiarekin lotura duten beste ezagutza batzuk (mintegiak, jardunaldiak, eskarmentu profesionala, eta.).

– Motibazio-gutuna (gaiarekiko interesa eta hura garatzeko gaitasuna).

Eskari-inprimakiaren eta dokumentazioaren bidez eskatzaileak bidalitako informazioaren arabera egingo da, soil-soilik, lehen fasea. Behar izanez gero, bidalitako ezagutza-agiriak egiaztatzeko eskatuko die hautaketa-eta jarraipen-batzordeak beka-eskatzaileei.

3. Lehen faserako ezarritako balorazio-elementuen arabera baloratu ondoren eskariak, argitaratu egingo dira emaitzak, hots, eskatzaile bakoitzari emandako behin-behineko puntuazioa, www.vitoria-gasteiz.org/procesosselectivos-en, CEAREN hautaketa-prozesuen atalean.

4. Egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzakete beka-eskatzaileek behin-behineko emaitzak argitaratu eta aste beteko epean, deitzaileek azter ditzaten.

5. Bigarren fasea. Elkarrizketa.

Beka bakoitzerako puntuaziorik handienak lortu dituzten lau eskarien aurrehautaketa egingo du hautaketa- eta jarraipen-batzordeak. Bigarren fasera, baloraziokora, igaroko dira beka bakoitzerako lau hautagaiak, eta elkarrizketa egingo zaie. Alderdi hauek baloratuko dira elkarrizketan, guztiak ere deialdi honen xedearekin zuzeneko lotura dutenak:

– Bekaren proiektuko gaiari buruzko berariazko ezagutzak.

– Komunikatzeko eta arrazoitzeko gaitasuna.

– Lanaren xedearekiko jarrera orokorra.

Zazpigarren artikulua: Esleipenaren ebazpena eta komunikazioa

1. Balorazioa egin ondoren, hautaketa- eta jarraipen batzordeak txosten batean argitaratuko ditu ebaluazioaren emaitzak, bai eta hautagaien hurrenkera ere, bi faseetan eskuratutako

puntuen baturaren arabera. Berdinketarik gertatuz gero, puntuaziorik handiena lortu dutenak izango dira aurrenekoak zerrendan, titulazioa eta ikasketak-espeditzea aintzat harturik betiere. Bekaren bat eman gabe geratzen bada, edo aldaketarik izaten bada programan, eskubidea du CEAk egoki deritzen erabakiak hartzeko, deialdi honen irizpideei jarraikiz.

2. Bekak eman aurretik, dagozkien ziurtagirien originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dituzte haietako bakoitzerako puntuaziorik handiena jaso duten hautagaiek.

3. Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko presidentearen ebazpen arrazoitu bidez egingo da beken esleipena.

4. www.vitoria-gasteiz.org/procesosselectivos-en (CEAren hautaketa-prozesuen atalean) argitaratuko dira hautaketa-prozesuaren emaitzak, hots, eskatzaile bakoitzari emandako behin betiko puntuazioak. Dagokion onuradunari jakinaraziko zaio beka bakoitzaren esleipen ofizialaren berri.

Prozesuaren amaierara iritsi, elkarrizketa egin eta bekarik eskuratu ez dutenek, berriz, ordezkotzerendak bat osatuko dute. Hutsik geratzen baldin bada bekaren bat, onuradun berri bat izenda dezake CEAk ordezkotzen artetik.

Zortzigarren artikulua: Ordezkapenak egiteko prozedura bekaren bat hutsik geratuz gero

1. Beka jada martxan dela hari uko egiten badio onuradunak, idatziz jakinarazi behar dio erabaki horren berri CEAREN zuzendaritzari, dimisioa onartzea nahi duen data baino hamabost egun lehenago, gutxienez. Bekari uko egiteak berekin dakar hari dagokion diru-laguntza galtzea.

2. Onuradunaren batek uko egiten badio bekari, edo baliogabetzen bazaio, puntuazio-ordenan hurrena datorren hautagaiari esleituko zaio, geratzen den eperako, betiere epe hori nahikoa baldin bada bekaren xedea betetzeko.

Bederatzigarren artikulua: Baliogabetzea

1. Bekaren esleipena edo hartaz baliatzeko epea baliogabetzeko ahalmena du CEAREN zuzendariak, dagokion hautaketa- eta jarraipen-batzordearen proposamen justifikatua dela medio betiere, egoera hauetakoren bat suertatuz gero:

a) Eskatzen diren baldintzak eta kondizioak bete gabe eskuratu bada beka, edo haiek aldatuta.

b) Ez baldin bada bete hurrengo artikuluan aipatuko diren obligazioetatik edozein, edo esleitutako lanak ez badira egin dagokien epean eta erara.

c) Bekadunaren errendimendua eta lanerako ardura ez badira behar adinakoak. Kasu horretan, txostena egin behar du, aldeztu aurretik, bekadunari dagokion tutoreak.

Hamargarren artikulua: Trebakuntza-beken esleipendunen betekizunak

1. Betekizun hauek dituzte trebakuntza-beken esleipendunek:

a) Administrazio-zentroraz azaldu behar dute. Ezinbesteko baldintza du honako hau beka hauen trebakuntza- eta ikerkuntza-jarduereko garapenak: bekadunak CEAREN egoitzara joatea, beka bakoitzerako erabakitzen dena.

Hala eta guztiz ere, salbuetsita daude esleipendunak egoitzara joateko obligaziotik, baldin eta Espainiako estatuan edo atzerrian bidaiatu beharra baldin badute, beren trebakuntza dela eta.

b) Trebakuntza-lanek eskatzen duten bertaratze- eta partaidetza-arauak betetzea, ikastetxearen jarraibideak betez.

c) Partaidetza- eta lankidetzaz jarrera izatea agintzen zaizkien trebakuntza-lanekiko.

d) Jarduera-txosten bat entregatzea, trebakuntzari ekin eta sei hilabeteko epean, eta azken memoria bat bekaren trebakuntza-epea amaitu eta hilabete igaro baino lehen. Bekadunaren tutoreak gainbegiratu eta kalifikatuko du memoria. Trebakuntza-epea amaitu eta memoria eba-luatu eta kalifikatu ondoren, jasotako prestakuntzaren egiaztagiri bat emango zaio bekadunari.

e) Egindako lanak direla-eta haien emaitzak argitaratu nahi baditu bekadunak, edo beste zeinahi hedapen bidez jakitera eman, berariazko baimena eskatu behar dio, idatziz, CEArri, eta espresuki aipatu CEA eta lanari dagokion beka-programa. CEAk, berriz, eskubidea du bekako lanak dibulgateko, haien egileak zein diren aipatuta betiere.

Hamaikagarren artikulua: Beken aldiberekotasuna eta bateraezintasuna

1. Bateraezina da aldi berean jasotzea deialdi honen arabera emandako beka bat eta Espainiako edo Europar Erkidegoko funts publikoz finantzaturako beste beka bat edo laguntza bat jasotzea, baldin eta aurreko artikulua aipatzen dituen obligazioak behar bezala betetzen uzten ez badu beste beka edo laguntza horrek.

2. Halaber, ezin du jaso bekadunak inongo diru-konpentsaziorik, diruzko edo gauzako ordainsaririk, ez eta ordainsari profesionalik ere jarduera profesional edo laboralen bat egiteagatik, bere edo besteren kontura, hauek izan ezik: aldi behin egiten direnak, betiere urtean metaturako iraupena bi hilabetetik beherakoa badute eta lanaldi-erdiak gorakoa ez bada lan-jarduna, jarduera horrek ez badie eragiten bekaren xedeari eta trebakuntza-eskakizunei eta CEArekin ez zuzeneko ez zeharkako loturarik ez duten lanak badira.

3. Ikasketa akademiko bateragarriak egin ditzakete trebakuntza-bekaren esleipendunek beka jasotzen ari diren bitartean, beren prestakuntza hobetzeko.

Hamaikagarren artikulua: Baliabideak

1. Berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke deialdi honen eta oinarri hauen aurka, bai eta beka ematearen edo ukatzearen eta hari dagozkion gainerako administrazio-egintza irmoen aurka ere, hilabeteko epean (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulua), edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua, deialdia jakinarazten eta/edo argitaratzen denetik bi hilabete igaro aurretik, Administrazioarekiko Auzien epaitegian, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak aurreikusten duenez.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 4an

Ingurugiro Gaierako Ikastegiko lehendakaria
IÑAKI PRUSILLA MUÑOZ

Gehigarria

1. eta 2. beka. Prospekzioa, azterketa eta paisaia ordenatzeko tresnen aplikazioa, eta Gasteizko paisaien hobekuntza funtzionalerako egokitze-proiektuak

CEAren zein alor dagokien: Jasangarritasunaren azterketa-, diagnosi- eta ebaluazio-saila.

Baldintzak:

Ikasketa-titulua:

Zientziak eta Arkitektura eta Ingeniaritzako goi-mailako unibertsitate-tituludunak.

Trebakuntza osagarria:

Bekaren aplikazio-eremuarekin lotura duen masterra edo graduondokoa.

Hizkuntzak: Ingelesa, B2 maila

Informatika: Informazio Geografikoko Sistemak eta CAD menderatzea eta/edo eskarmentua horiek erabiltzen.

3. Beka: Fitoerremediazioari eta teknozoruei buruzko ikerketa-proiektuen garapena Gasteizen
CEAren zein alor dagokion: Jasangarritasunaren azterketa-, diagnosi- eta ebaluazio-saila.

Baldintzak:

Ikasketa-tituluak:

Zientzia eta Ingeniaritzako goi-mailako unibertsitate-tituludunak.

Trebakuntza osagarria:

Bekaren aplikazio-eremuarekin lotura duen masterra edo graduondokoa.

Hizkuntzak: Ingelesa, B2 maila

Informatika: Informazio Geografikoko Sistemak menderatzea eta/edo eskarmentua horiek erabiltzen.

4. beka: Gasteizko Hiri Azpiegitura Berdearen Sistemaren karakterizazioa, azterketa eta jarraipena, eta hobekuntza-jardueren proposamena.

CEAren zein alor dagokion: Jasangarritasunaren azterketa-, diagnosi- eta ebaluazio-saila.

Eskatzen den titulazioa:

Ikasketa-tituluak:

Zientziak eta Arkitektura eta Ingeniaritzako goi-mailako unibertsitate-tituludunak.

Hizkuntzak: Ingelesa, B2 maila

Informatika: Informazio Geografikoko Sistemak menderatzea eta/edo eskarmentua horiek erabiltzen.

5. beka: Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen-ereduen prospekzioa, azterketa eta aplikazioa Gasteizen.

CEAren zein alor dagokion: Jasangarritasunerako informazio- eta berrikuntza-saila.

Eskatzen den titulazioa:

Ikasketa-tituluak:

Zientzia eta Ingeniaritzako goi-mailako unibertsitate-tituludunak.

Hizkuntzak: ingelesa, B2 maila

Informatika: Informazio Geografikoko Sistemak menderatzea eta/edo eskarmentua haiek erabiltzen.

6. beka: Klima-aldaketa leuntzeko jarduera eta neurrien prospekzioa, azterketa eta aplikazioa Gasteizen.

CEAren zein alor dagokion: Jasangarritasunerako informazio- eta berrikuntza-saila.

Eskatzen den titulazioa:

Ikasketa-tituluak:

Zientzia eta Ingeniaritzako goi-mailako unibertsitate-tituludunak.

Hizkuntzak: ingelesa, B2 maila

Informatika: Informazio Geografikoko Sistemak menderatzea eta/edo eskarmentua haiek erabiltzen.

7. beka: Ingurumenari eta herritarren partaidetzari buruzko heziketa- eta sentsibilizazio-programak hobetzeko tresna berrien prospekzioa, azterketa eta aplikazioa Gasteizen.

CEAren zein alor dagokion: Ingurumenari buruzko sentsibilizazioa eta hiri-jasangarritasunaren kulturaren sustapena saila.

Eskatzen den titulazioa:

Ikasketa-tituluak:

Zientzietako eta Gizarte Zientzietako goi-mailako unibertsitate-tituludunak

Hizkuntzak: ingelesa, B2 maila.